

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak izan ezik. 2023ko urria

Apartamentu turistikoetako sarrerak % 8,8ko igoera izan dute eta landetxeetakoek egonkor jarraitu dute 2023ko urrian

Atzeritarren ostatu-gauak % 6,5 igo dira landetxeetan, eta % 24,5 apartamentu turistikoetan

Eustaten datuen arabera, **2023ko urrian** Euskal AEko **landetxeetako** sarreraren kopuruak aurreko urteko hilabete berean izandakoen kopurua berdindu du (14.976 sarrera). Ostatu-gauen kopurua ere ia berdina izan da: 33.866 ostatu-gau 2023ko urrian eta 33.876 2022ko urrian.

Euskal AEko landa-ostatueta sarrerak, ostatu-gauak, batez besteko egonaldia eta okupazio-mailak. Urria 2023

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		gelaka	
	2023/10	m/m-12 (%)	2023/10	m/m-12 (%)	2023/10	2022/10	2023/10	p.p. *	2023/10	p.p. *
EUSKAL AE	14.976	0,0	33.866	0,0	2,26	2,26	24,9	0,6	29,2	0,9
Estatukoak	11.425	1,5	26.398	-1,7	2,31	2,39	-	-	-	-
Atzeritarrak	3.551	-4,5	7.468	6,5	2,10	1,89	-	-	-	-
Araba/Álava	3.024	13,2	6.617	15,5	2,19	2,14	19,4	2,6	21,6	2,7
Estatukoak	2.495	10,2	5.578	11,2	2,24	2,22	-	-	-	-
Atzeritarrak	529	30,0	1.039	45,5	1,96	1,75	-	-	-	-
Bizkaia	4.635	-14,0	10.110	-15,1	2,18	2,21	25,2	-4,1	30,3	-3,7
Estatukoak	3.591	-8,4	7.786	-14,6	2,17	2,33	-	-	-	-
Atzeritarrak	1.044	-29,0	2.324	-16,8	2,23	1,90	-	-	-	-
Gipuzkoa	7.317	5,8	17.139	5,6	2,34	2,35	27,8	2,6	32,6	3,1
Estatukoak	5.339	5,2	13.034	2,4	2,44	2,51	-	-	-	-
Atzeritarrak	1.978	7,4	4.105	17,2	2,08	1,90	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2023ko Azaroaren 22a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

2023ko urrian, atzeritarren sarrerak aurreko urteko urrikoak baino % 4,5 gutxiago izan dira, eta Euskal AEko landetxeetako sarrera guztien % 23,7 izan dira. Ostatu-gauen kasuan, berriz, atzeritarrenak guztien % 22,1 izan dira, eta % 6,5 igo dira 2022ko urriarekin alderatuta.

Lurralde historikoak kontuan hartuta, sarrerak % 13,2 igo dira Araban, eta % 5,8 Gipuzkoan. Bizkaian, berriz, % 14,0 jaitsi dira. Ostatu-gauak, berriz, % 15,5 igo dira Araban, eta % 5,6 Gipuzkoan. Bizkaian, berriz, % 15,1 jaitsi dira.

Euskal AEn, establezimendu mota horretako batez besteko egonaldia 2,26 egunekoa izan da 2023ko urrian, hau da, aurreko urteko hilabete berekoaren oso antzekoa. Batez besteko egonaldiak ez du adierazten Euskal AEra etortzen diren bidaiarien egonaldiaren guztizko iraupena, gaua igarotzen duten establezimendu bakoitzean ematen duten egun kopurua baizik.

Plazen arabera, okupazio-maila % 24,9koa izan da, hau da, 2022ko urrian lortutakoa baino 0,6 portzentaje-puntu handiagoa. Gelen arabera, berriz, urtetik urterako igoera 0,9 puntukoa izan da, eta % 29,2ra iritsi da.

Apartamentu turistikoei dagokienez, 2023ko urrian 14.775 sarrera eta 52.944 ostatu-gau erregistratu dira. Datu horiek aurreko urteko urrikoekin alderatuz gero, sarreraren kopuruaren igoera % 8,8koa izan da, eta ostatu-gauen kopuruarena, berriz, % 2,1ekoa.

Apartamentu turistiko deitzen zaio ustiapeneko enpresa-unitate bakar batek bloke edo multzo gisa eskaintzen duen ostatu-unitate bakoitzari. **Ez dira epigrafe honetan sartzen erabilera turistikoko etxebizitzak**, hau da, helburu turistikoetarako aldi baterako eskaini, merkaturatu edo lagatzen diren etxebizitza partikularrak.

Sarrerak, gauldiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak Euskal AEko apartamentu turistikoetan. Urria 2023

	Sarrerak		Gauldiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		apartamenduka	
	2023/10	m/m-12 (%)	2023/10	m/m-12 (%)	2023/10	2022/10	2023/10	p.p. *	2023/10	p.p. *
EUSKAL AE	14.775	8,8	52.944	2,1	3,58	3,82	35,7	-1,7	62,8	-6,0
Estatukoak	9.317	-2,7	32.203	-8,5	3,46	3,67	-	-	-	-
Atzeritarrak	5.459	36,4	20.741	24,5	3,80	4,16	-	-	-	-
Araba/Álava	1.158	-10,8	8.450	0,5	7,30	6,47	25,4	0,2	66,6	-6,6
Estatukoak	979	-15,8	5.957	-10,8	6,08	5,74	-	-	-	-
Atzeritarrak	179	31,1	2.493	44,4	13,94	12,65	-	-	-	-
Bizkaia	9.742	6,5	22.471	2,2	2,31	2,40	34,9	-2,9	47,4	-5,3
Estatukoak	6.016	-5,5	12.520	-12,4	2,08	2,25	-	-	-	-
Atzeritarrak	3.726	33,7	9.951	29,2	2,67	2,76	-	-	-	-
Gipuzkoa	3.875	23,9	22.023	2,7	5,68	6,85	43,2	-2,0	76,2	-5,4
Estatukoak	2.321	13,4	13.726	-3,4	5,91	6,94	-	-	-	-
Atzeritarrak	1.554	43,9	8.297	14,8	5,34	6,69	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hila bete berarekiko portzentaje-zko puntuko alde

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hila bete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2023ko Azaroaren 22a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Euskal AEko apartamentu turistikoetako sarrera guztien % 36,9 eta ostatu-gau guztien % 39,2 atzeritarrenak izan dira, eta urtetik urterako % 36,4ko eta % 24,5eko igoerak izan dituzte urrian, hurrenez hurren.

2023ko urrian, apartamentu turistikoetako batez besteko egonaldia 3,58 egunekoa izan da, hau da, 2022ko urrian lortutakoa baino txikiagoa (3,82 egun 2022ko urrian Euskal AE osoan). Araban, establezimendu horietako batez besteko egonaldia 7,30 egunekoa izan da, Gipuzkoan 5,68 egunekoa eta Bizkaian, berriz, 2,31 egunekoa.

Plazen arabera, Euskal AEko okupazio-maila % 35,7ra iritsi da azken hilabetearen, eta, beraz, 2022ko urrikoa baino 1,7 portzentaje-puntu txikiagoa izan da. Apartamentuen arabera, berriz, okupazio-mailak 6,0 portzentaje-puntuko jaitsiera izan du, eta % 62,8ra iritsi da.

Euskal AEko **aterpetxe turistikoei** dagokienez, 2023ko urrian sarrerek % 5,6ko jaitsiera izan dute urtetik urtera. Guztira, 20.165 sarrera eta 35.946 ostatu-gau izan dira. Bizkaian, 21.219 ostatu-gau erregistratu dira, Gipuzkoan 13.387 eta Araban 1.339.

Aterpetxe turistiko horietan, batez besteko egonaldia 1,78 egunekoa izan da Euskal AEn. Plazen araberako okupazio-mailak 0,2 portzentaje-puntuko jaitsiera izan du urtetik urtera, eta % 36,2ra iritsi da.

Informazio-oharra

Hilabete honetan, ETH inkestaren erantzun-tasa **% 94,9koa** izan da landetxeetan, **% 85,3koa** apartamentu turistikoetan eta **% 79,5ekoa** aterpetxe turistikoetan. Eustatek eskerrak eman nahi dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei, egindako ahaleginagatik.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62